

GARA

2015/3/19

æek
19. korrika

**EUSK
AHAL
DUN!**

Urepeletik Bilbora
2015eko martxoaren 19tik 29ra

Testuak: Aritz MALDONADO

Euskara gure lan tresna


Euskara gure hizkuntza eta eguneroko erronka.



FAGOR
FAGOR ARRASATE Koop. E.



www.fagorarrasate.com



El escultor Remigio Mendiburu portó el testigo que él mismo diseñó, en la Korrika de 1980.

Desde el año 1980 el testigo de la Korrika ha cubierto una distancia equivalente a la vuelta al mundo, pasando por decenas de miles de manos

Quienes tienen menos de 35 años no conocieron la primera edición de Korrika. Era noviembre de 1980.

Ronald Reagan llegaba a presidente de EEUU tras derrotar a Carter; miles de personas morían en el sur de Italia a consecuencia de una serie de terremotos; Augusto Pinochet seguía imponiendo su dictadura en Chile; en Uruguay se rechazó en plebiscito la propuesta de la dictadura militar de institucionalizar el régimen militar; el BVE asesinaba a dos militantes vas-

EMPEZÓ CON UN PASO Y YA VA POR LOS 40.000 KILÓMETROS

cos en Caracas, a un vecino de Hernani y a dos clientes del bar Hendayais; ese mismo mes moría en atentado de ETA el jefe de la Policía Municipal de Donostia,

que también era teniente coronel del Ejército español. En 1980 estaban estudiando euskara unos 40.000 adultos, según datos de AEK. El periódico "Egin"

costaba 25 pesetas –equivalente a 0,15 euros– y en sus páginas se hacía eco de los primeros temporales pre-invernales. De hecho, el día 29 de noviembre esta-

ba nevando cuando, a las diez de la noche, salía desde las puertas de la Universidad de Oñati un sencillo testigo de madera, hueco, con un mensaje en su interior: la carta que Ricardo Arregi escribió en febrero de 1966 a Euskaltzaindia en la que proponía la creación de la sección de alfabetización. El testigo iba empuñado por un euskaltzain navarro, José María Satrustegi, que lo compartió en el kilómetro 0 con cuatro alumnos de la ikastola Txantxiku, de Oñati, y luego lo cedió a Eli Galdos, alcalde de esta localidad y viceconsejero de Interior del Gobierno Vasco.





El testigo y el mensaje que llevó en su interior en la Korrika de 1999. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



Aita Barandiaran, con 91 años, en la primera Korrika.

Una larga marcha comienza con un pequeño paso, y la Korrika ya había dado el suyo, quizás el más difícil. Durante los siguientes días, y noches, ese testigo fue pasando por miles de manos, sin detenerse ni un solo momento, y recorrió en 182 horas los 1.820 kilómetros diseñados por la organización (10 km por hora) antes de detenerse el 7 de diciembre en Bilbo en un acto final arropado por 20.000 personas. Aunque el término "Euskadi" era todavía el que imperaba, el lema de aquella primera edición fue "Korrika Euskal Herria", queriendo dejar claro desde el principio que el euskara supera las mugas impuestas y unifica los siete territorios históricos. El jarrón estaba roto políticamente, pero cada trozo seguía aferrado a los demás gracias a la lengua común. Telesforo Monzón, que tanto había defendido la unidad vasca, llevó el testigo de la Korrika a su paso por Bergara. Para entonces, el exconsejero de Interior del Gobierno Vasco ya no era un exiliado, sino un parlamentario elegido en las listas de Herri Batasuna.

La primera jornada de aquella Korrika finalizó en Hendaia, tras superar la primera muga política del país a través del puente de Santiago. Poco antes el testigo había sido portado en Hondarribia por Alfonso Sastre, y días más tarde llegaría a Iruñea tras atravesar Euskal Herria de norte a sur, desde Baiona, Donibane Garazi y Maule, hasta Tuter. En la capital navarra recorrió nada menos que 17 kilómetros y contó con la participación de parlamentarios, concejales, representantes de medios de comunicación, de Osasuna y numerosos organismos sociales y culturales. Pero, sin duda, el participante más ilustre y entrañable de la primera Korrika fue Aita Barandiaran, que a sus 91 años portó el testigo en Lazkao, con el dorsal 92. A los euskaltzales que le acompañaban les mostró su preocupación porque iba demasiado despacio. Su kilómetro lo cubrió en un tiempo de seis minutos y después se retiró a descansar, orgulloso de haber colaborado con aquella novedosa iniciativa en favor de la lengua autóctona.

Pocos imaginaban entonces que 35 años después la Korrika seguiría su larga marcha en favor del euskara y que se convertiría en uno de los actos más participativos de Euskal Herria.

POR ENCIMA DE LOS 2.000

En la segunda edición (mayo de 1982) hubo un error de medición y el recorrido se quedó más corto de lo que quería la organización: 1.822 kilómetros. En la tercera (diciembre de 1983) se llegó a 1.960 kilómetros. El éxito de participación iba en aumen-

to, y se vio que el trazado resultaba escaso para tantas manos. Así, en la cuarta edición se superó la barrera de los 2.000 kilómetros, y desde entonces no ha bajado de esa cifra.

En la edición 16 (marzo-abril de 2009) se superaron los 2.500 kilómetros, un récord que se superó en la edición 18 (marzo de 2013), no solo por los 2.587 kilómetros del trazado, sino también porque fue la Korrika más multitudinaria de todas. Aquel testigo que Remigio Mendiburu diseñó en 1980, y

que ocho años después fue sustituido por otro similar de Juan Gorriti, ha recorrido en estos 35 años en torno a 40.000 kilómetros, es decir, el equivalente a la circunferencia de la Tierra. Se dice pronto.

El esfuerzo no ha sido baldío, porque en este tiempo se han euskaldunizado decenas de miles de adultos y las aportaciones obtenidas en la Korrika han sido decisivas para poder mantener la labor de AEK y todas las infraestructuras necesarias para ello.

Del medio rural al urbano

La edición que hoy empieza recorrerá 2.161 kilómetros entre Urepel y Bilbo, queriendo reflejar así que el euskara vive tanto en el medio rural como en el urbano, en un pequeño pueblo como en una gran urbe, en Ipar Euskal Herria como en Hego Euskal Herria, y que en ámbitos tan distintos han surgido figuras de la talla de Xalbador o Aresti.

La Korrika dará su primera zancada a las 17:30 en la plaza de Urepel y ya no se detendrá hasta las 12:30 del día 29 en Bilbo, tras atravesar más de 240 localidades. Al igual que

en ediciones anteriores, no se conocerá hasta ese momento quién será el encargado de llevar el testigo en el último kilómetro y de dar lectura al mensaje guardado en su interior.

Guillermo de Humboldt, el sabio alemán que aprendió euskara en el siglo XVIII y elaboró importantes trabajos sobre la lengua vasca, creía que después de 1900 no iba a quedar rastro de ella sobre la Tierra. Ya han pasado 115 años y aquí sigue el euskara, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, mostrando al mundo que no detiene su marcha. También los sabios se equivocan.

Munetaberrri
BILBOKO TXAKOLINA

19. Korrika EUSKAL AHAL DUN!

Regulador Bizkaiko Txakolina de Origen

Bilbao www.munetaberrri.com

19. Korrika EUSKAL AHAL DUN!

CAFE BAR BILBAO

PLAZA NUEVA, 6 TFNO. (94) 415 16 71 BILBAO www.bilbao-cafebar.com



KARPAK

AULKIA

ESZENATOKIAK, HESIAK 943 473 488 JANARI ZERBITZUA

AULKI MAHAIAEN ALOGERA

www.aulkia.com

Azken hamarkadetan 50.000 pertsona inguru euskaldundu dira AEK-ko euskaltegietan

Korrika lasterketa bat baino gehiago da. Euskararen normalizazioaren gaia modu parte hartzaile batean gaurkotasanaren erdigunean jartzeaz gain, AEK-k baliabideak lortzeko garrantzia handia du Korrikak.

Milaka pertsonak parte hartzen dute euskararen aldeko lasterketan, eta hamaika dira euskaltegian izena ematera hurbildu direnak Korrikaren ostean, ekimenak erakarrita. Aurreko edizioako azken mezuan Amets Arzallus bertsolariak irakurritako hitzak ekarri ditu gogora Mertxe Mugika AEKko koordinatzaile nagusiak: «Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen».

«Lasterketak hausnartzeko bide batzuk zabaltzen ditu, indar metaketa bat da, eta aniztasuna aldarrikatzen da, aniztasun politikoa, generokoa, adinekoa...; lasterketan ikusten dena gerora ere mantentzeko gai izango bagina, euskararen normalizazio eta berreskurapenean sekulako jauzia egongo litzateke». Korrikaren izpiritua egunerokora eramatean dago gakoa, Mugikaren ustetan. «Auzolanean, bakoitzak egin dezakeenetik elkarlanera, eragile eta instituzioetara irits daiteke».

AEKko koordinatzaile legez seigarren Korrika du 19. edizio hau Mugikak, eta betiko ilusio eta gogo berarekin hartu du aurtengoa ere. «AEKn kristoren altxorra daukagu erakundea osatzen duen jendearekin; guzti honek ilusio itzela sortzen du, eta prestaketa lanak errazten di-

KORRIKA, HELDUEN ALFABETATZEARI ERAGITEKO HAUSPOA



Mertxe Mugika, AEKko koordinatzaile nagusia. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

tu horrek». Milaka lagunek beren aletxoak ematen dute Korrika burutzeko; AEKkideak soilik 500dik gora lagun dira jada. Horiez gain, ehunka lagun daude Korrikarekin kolaboratzen dutenak. «Jende hori gabe ez litzateke posible Korrika; harrotasunez bizi dut Korrika, baina harrokeriarik gabe».

AUZOLANA VS MURRIZKETAK

Korrika gurean ezagutzen den auzolan ekimenik garrantzitsuena ere bada. Horrez gain, AEKren jarduna bermatzeko babes ekonomikoa ere badela gogoratu du elorriarrak, eta finantziarioaren egituraketarik eza euskalgintzaren arazo «endemiko» gisa definitu du. «Herri honen euskalduntzea eskola eta euskaltegietan oinarritzen bada, logikoa da antzeko tratamendua izatea; hortaz, finantziario orokor bat beharko litzateke, eta hori blindatu».

Izan ere, euskaltegiek nagusien euskarazko alfabetatzean eginiko lana aitortu beharrekoa da. Azkeneko hamarkadetan euskarak 300.000 hitzun irabazi ditu, eta horien herenak euskaltegietan euskaldundu dira, horietako 50.000 AEKn.

Diru laguntzei dagokienez, hiru administrazio ezberdinekin konpondu beharra du. Horien artean, bereziki mingarria zaio Mugikari Nafarroako Gobernuaren jarrera: «Nafarroako Gobernuak ez digu zentimo bakarra eman azken hiru urteetan; lehen gutxi eta orain ezer. Ulertezina da». Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan, aldiz, hobera egin du.

«Herri honetan borondate irmoa dago euskara ikasteko»

AEK-k egunero egiten duen lanak helburu argia du: Ahalik eta jende gehien ahalik eta epe laburrean euskalduntzea. 2014-2015 ikasturte honetarako, 10.000 lagunek baino gehiagok eman dute izena AEKn, eta ikasturtea amaitu orduko euskararen lurraldean 12.000ra iristea espero da. «Herri honetan borondate irmo bat dago euskara ikasteko», ziurtatu du Mugikak. Azken urteetan, le-

hentasan aldaketa bat nabaritu du jendartean Mugikak, eta hori buruko min izan dute erakundean azken urteetan. «Jendeak ordu gutxiago sartu nahi du; beraz, zelan konpentsatu euskaltegian igaroko ez dituen ordu horiek euskalduntze prozesua azkartzeko?».

Irakaskuntzaz gain, bestelako ildoak ere jorratzen ditu erakundeak. Alde bate-tik, euskara planak egiten dituzte enpre-

sa zein instituzioentzat. Bestalde, «praktika jarduerak» izenez ezagutzen direnak boladan daude; klasetik kanpo euskaraz hitz egiten jarraitzeko Mintzalagun bezalako jarduerak sustatzen dira. «Hazkunde bat gertatu da horrelakoetan eta hori ona da, azken finean euskaraz bizitzeko pausoa errazten baitute». Korrika ere, ekimen parte hartzaile bezala, oso arrakastatsua izaten ari da azken urteotan.

Lasterketa euskararekiko lehenbiziko harremana da askorentzat. «Guzti honen atzean baikortasuna dago: kapazak gara herri hau euskaratik eta euskaraz bizitzeko, eta urtetik urtera gero eta jende gehiago gara; Korrikaren zurrunbiloan sartzeko egunotan, eta behin igarota, AEKra izena ematera etortzeko; horrela 'euskaldunduko' gara», gaineratu du Mugikak.

Txotx egin!!

Cenas con servicio de autobús

Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturriasagardotegia.blogspot.com

Arabian arabako sagardoa!

Egin txotx!!

Cenas con servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia

☎ 945 244 852-657-736 599 · ASKARTZA-TREBINU

Contrapas

Heufcara ialgui adi cãpora

Garacico herria

Benedica dadila

Heufscarari emandio

Beharduyen thornuya.

Heufcara

Ialgui adiplaçara

Berce gendec vsteçuten

Ecín scriba çayteyen

Oray dute phorogatu

Euganatu cirela.

Heufcara

Ialgui adimundura

Lengoagetan ohi inçan

Estimatze gutitan

Oray adic nobharçus

Berceac oroc içan ðira

Bere goihen gradora

Oray hura iganenda

Berceç ororen gaynera.

Heufcara

Bascoac oroc preciatzē

Heufcara ez iaquin harrē

Oroc iccassiren dute

Oray cerden heufcara.

Heufcara

Oray dano egon bahiz

Imprimitu bagueric

Hi engoitic ebiliren

Mundu gucietaric.

Heufcara

Eceyn ere lengoageric

Estimatze gutitan

Hizkuntzak herri egiten gaitu

«Korrikak egiten jarraitu behar luke, baina ez luke helburu ekonomikorik izan beharko»

ASIER AMONDO ■ Korrikako arduraduna

PRESTAKETA LANEI AZKEN UKITUAK EMATEN HARRAPATU DUGU ASIER AMONDO (LAUDIO, 1969). GAUR UREPELETIK ABIATUKO DEN 19. KORRIKA LEHENBIZIKOA IZANGO DU ARDURADUN LEGEZ. EDURNE BROUARDEN ESKUTIK JASO DU LEKUKOIA; ARDURA HANDIA DELA AITORTUTA ERE, GOGOTSU DAGO GAURKO BIDEARI EKITEKO.

Prest al duzue guztia?

Azken zertzeladak ematea falta zaigu, azken kontuak lotzea. Jendea kilometroak erosten ari da herri eta herrialdeetan, martxa onean; kilometro eskari handia dago, horrek esan nahi du jendea gogotsu dagoela Korrika beraien herrietatik pasatzeko. Hori pozgarria da AEKrentzat eta Korrikarentzat. Jendea gogotsu dago bai Korrika Urepelen hasteko bai Bilbora iristeko ere. Gure aldetik hori, azkeneko zertzeladak ematea, falta da, baina ia guztia prest dugu.

Korrika batzordean lehenagotik ere bazeunden arren, aurtengo lehenbiziko Korrika

izango duzu arduradun bezala. Urduri?

Urduri bai, tentsio puntu hori igartzen dut, eta eguna hurbildu ahala gehituz doa, gainera. 14. Korrikatik Korrika batzordean egon naiz, eta bueno, bizipenak antzekoak dira, baina erantzukizun handiagoa dut orain. Korrika oso gauza inportantea da Euskal Herriarentzat eta, beraz, ezinbestekoa da guztia ongi ateratzea, eta mundu guztia pozik geratzea.

Aurrelanketatik igarriko zenuen lan gehiago ezta?


Bai, pixka bat aldatzen da, orain Korrikaren aurpegia naiz eta. El-karrizketak egin behar izan di-

tut irrati eta prentsarako, eta abar. Ikusezin izatetik bisualizatu izatera pasatu naiz, gauzak asko aldatu dira.

19. Korrikaren leloa «Euskahaldundu» da. Zer transmititu nahi duzue?

Ez da guk asmatu dugun kontzeptu bat, guk egin duguna gurera ekartzea izan da. Azken finean, ahalduz kontzeptua 60ko hamarkadan AEBetako beltzek erabili zuten Empowerment kontuarekin; gero, 80ko hamarkadan feministek ere beren egin zuten. Eta guk gurera ekarri dugu.

«Euskahaldun» izatearekin guk dioguna da euskaldunak



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

izatea nahi dugula. Horretarako, ahalduz kontzeptua lantzea da gure apustua, indar metaketa eta indar biderketa egotea. Honen atzean Euskal Herrian oso ezagunak diren beste bi kontzeptu daude, auzolana eta elkarlana. Elkarlana gauzatu behar da gizartearen eragile diren

esparru guztien artean, erakunde, sindikatu, alderdi politiko, eta abarren artean; auzolana ere landu behar dugu, norbanakoon lana ere bideratu behar delako.

Aurtengo edizioko omendua Durangoko Azoka izango da. Zergatik?



Aurten 50 urte beteko ditu Durangoko Azokak, eta guk uste dugu ahaldu kontzeptuaren adibide izan dela eta dela Euskal Herrian; Korrikarekin batera, adibide nagusia, esango nuke. Izan ere, hasi zenean, Durangoko Liburu Azoka zen; ostean, Liburu eta Disko Azoka izatera igaro zen, eta egun, Kultur Azoka da. Euskal Herrian kultur arloan egiten denaren erakusleho nagusietako bat da, eta guk hori aldarrikatu nahi dugu. Zabaldu eta aldarrikatu nahi dugun ahaldu kontzeptuarekin bat egiten dugula uste duela ikusi dugun hor.

19. Korrika honek Urepel eta Bilbo batuko ditu. Sinbolismotik badu pixka bat horrek, ezta?

Bai, eta hori nahi gabe sortutako kontua da. Bilbon amaituko zela erabaki egin genuen. Hasieretarako, berriz, badugu idatzi gabeko lege bat: Azken Korrika amaitzen den herrialdean hasi behar du hurrengoak. 18. Korrika Baionan amaitu ostean, hau Urepeletik hastea erabaki genuen. Egia esan, sinbolismoa ematen dio horrek, nekazaritza gunebatetik Euskal Herriko metropoli-rahelduko gara; Xalbador eta Gabiel Aresti ere lotuko ditugu bide batez. Bilbon amaituko dugu, baita, bertan euskalduntze maila handiagoa nahi dugulako; portzentualki, Bilbo ez da hain handia euskaldun kopuru handia izan arren.

Asko aldatu da Korrika 35 urtean?

Bai, gauzak asko aldatu dira. Lehengo Korrika artisau lana zela esan izan dut beti: kilometroak margotu egin behar izaten ziren, kotxean gora eta behera ibiltzen ginen... guzti horrek la-



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

na eta denbora eskatzen zuen. Orain, teknologiek asko erraztu dute, aurreikuspen ugari egin daitezke. Pentsa, lehen argazkilariek egunero toki zehatz batera joan behar izaten zuten argazkien errebelatua egitera, eta gero bidali egin behar izaten ziren. Gaur egun, ordenagailu eta internetekin ia momentuan bertan egon daitezke argazkiak komunikabideetako bulegoetan.

Euskal Herriko auzolan adibiderik argienetako bat da Korrika, halaber. Harro?

Bai, AEKn harro ikusten dugu Korrika. Sentimendu ezberdinak batzen dira kilometro bakoitzean: negarra, emozioa, barreak, malakoak... AEK bizi dugunontzat ekimen garrantzitsuena da. Bai-

na pentsatu behar duguna da guk bakarrik ezingo genukeela egin, ezta AEK-k bere kabuz ere. Honen atzetik kristoren lana dago, herrietako Korrika batzordeetan dabilzanak, lantaldeak... auzolanaren adibide gorenetakoa bat da Korrika bera. Pentsaezina da Korrika Urepelen hasi eta Bilbon amaitu ahal izango litzatekeela atzean dagoen jende guzti horren inplikaziorik gabe, bai zuzenean antolaketan dabilen jendearen lan hori gabe, bai modu batean edo bestean parte hartzen dabilzanena gabe.

Sinbolismo eta festatik harago, Korrika babes ekonomikoa ere bada...

AEKrentzat Korrika bi urterik behin egiteak hauspoa da. Gaur

egun bizi dugun egoera ez da onena: EAEn diru laguntzak ez daude formaldurak, Nafarroan ez da existitzen laguntzarik eta Iparraldeko diru laguntza leerroak ez dira nahikoak, oraindik ere. Hortaz, Korrika hauspoa da; AEKri bermea ematen dio bi urtez kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko. Arlo guztietan, kalitate maila hori bermatzeko beharrezkoa da, irakaskuntzan, normalkuntzan, Berbalagunetan...

Edurne Brouarden eskutik hartu duzu arduraduna izateko lekukoa. Eman dizu gomendioarik?

Gomendioak bai. Batez ere, lasai egoteko esan dit; gauzak atera, beti ateratzen direla, nahiz eta

une batzuetan momentu txarrrak biziko ditugun. Taldearen lanaren balioari esker, aurrera egingo dugula. Edurnek urteotan egin duen lana eskertzekoa izan da, hainbat Korrikatan egon da eta. Orain niri dagokit eta sopitak eskatzen dizkiot behar dudanean; gure arteko komunikazioa zuzena da eta laguntzeko prest dago, beti. Orain, azken egunak diren hauetan lasaitasuna mantentzeko eta lasai egoteko esan dit, guztia ondo irtingo dela.

Korrikak gorabeherak izan ditu, baina joera gorakorra du 35 urte eta gero. Zeintzuk lirateke hurrengoetarako erronkak?

Korrikak erronka nagusi bat du: Korrikak egiten jarraitu behar luke, baina ez luke helburu ekonomikorik izan beharko. Helburu hori lortuta, euskaltegien egoera normalduta legoke Euskal Herriaren luze eta zabaleran. Beraz, Korrika hori ospakizun eta sustatze ekimen bat izango litzateke, denok gauzak ondo egin ditugun seinale izango litzateke, eta nik uste dut erronka nagusiak hori behar lukeela. Korrika mantendu behar dugu bizirik urteetan edota mendeetan, zergatik ez? Baina beti ere jai kutsu hori harturik, euskararen egoera normaldua dagoelako eta euskaraz bizi garen herri bat garelako.

Azkeneko mezurik?

Martxoaren 19an (gaurko hitzorduaz) ahalik eta jende gehien batu behar gara, eta Bilboko eguna ere ahalik eta arrakastatsuenaz izatea lortu behar dugu. Herri bat martxan dagoela adieraziko dugu horrela.

19. korrika
EUSK AHAL DUN!

AGURAIN NGO UDALA

Zapatari Kalea 15. 01200 Agurain (Araba)
☎ 945 30 01 55 · ☎ 607 24 39 38 · Faxe: 945 31 20 24
harrera@agurain.com · www.agurain.com

19. korrika
EUSK AHAL DUN!

ALEGRIA DULANTZIKO Udala

Alegria-Dulantzi

M27, Ostirala
15:30h.- Korrika Txiki

M28, Larunbata
11:00. Badator Korrika Dulantzira! Zatoz Korrikara!
13:00. Pintxo Banaketa eta Baserriko Haur Parkea Plazan

M29, Igandea
18:00. Ikuskizuna "Buba eta Bubu" Kresala Euskal Dantza Taldearekin 2-7 urteko Umeentzako Ikuskizuna Auditorioan-2,5€. Sarrerak Kultur Etxean salgai

KORRIKA19-EUSKAHALDUN

19. KORRIKA IBILBIDEA



Igantzi:	16:12
Etxalar:	16:42
Bera:	17:06
Ibardin:	17:48
Azkaine:	18:53
Sara:	19:48
Senpere:	20:37
Uztaritze:	22:02
Baiona:	23:25

MARTXOAK 22, IGANDEA

Angelu:	00:43
Biarritze:	01:22
Getaria:	03:05
Donibane Lohizune:	03:40
Hendaia:	05:37
Hondarribia:	06:09
Irun:	06:48
Lezo:	07:13
Pasai Donibane:	07:48
Donostia:	08:53
Lasarte-Oria:	12:31
Orio:	14:40
Zarautz:	15:31
Getaria:	16:21
Zumaia:	16:55
Zestoa:	17:40
Azpeitia:	18:38
Azkoitia:	19:31
Errezil:	20:32
Tolosa:	22:52
Legurreta:	23:44

MARTXOAK 23, ASTELEHENA

Itsasondo:	00:10
Ordizia:	00:23
Beasain:	00:58
Lazkao:	01:23
Olaberria:	01:42
Zumarraga:	04:04
Urretxu:	04:24
Oñati:	06:34
Arrasate:	08:00
Aretxabaleta:	08:25
Eskoriatza:	08:50
Aramaio:	09:25
Bergara:	11:05
Elgeta:	12:08
Elorrio:	13:05
Abadiño:	13:45
Durango:	14:10
Iurreta:	14:25
Berriz:	15:10
Zaldibar:	15:40
Mallabia:	16:15
Ermua:	16:28
Eibar:	17:00
Soraluze:	17:35
Elgoibar:	18:15
Deba:	20:10

MARTXOAK 19, OSTEGUNA

Urepele:	17:00
Banka:	17:58
Baigorri:	19:03
Donibane Garazi:	20:08

MARTXOAK 20, OSTIRALA

Maule:	00:34
Donapaleu:	03:21
Hazparne:	06:31
Kanbo:	07:36
Ezpeleta:	08:53
Ainhoa:	09:25
Dantxarinea:	09:45

Urdazubi:	09:51
Amaiur:	11:21
Elizondo:	12:06
Irurita:	12:23
Almandoz:	13:37
Gelbentzu:	16:20
Makirriain:	18:02
Atarrabia:	18:41
Uharte:	18:54
Atarrabia:	19:09
Burlata:	19:14
Sarriguren:	19:37
Iruñea:	20:00
Mutiloa:	20:25

Iruñea:	20:43
Antsoain:	21:39
Iruñea:	21:48
Zizur:	22:48
Barañain:	23:16
Iruñea:	23:32

MARTXOAK 21, LARUNBATA

Berriozar:	00:03
Irurtzun:	01:57
Uitzi:	04:17
Leitza:	05:02
Berastegi:	05:33
Ibarra:	07:04

Tolosa:	07:11
Amasa-Villabona:	08:29
Zizurkil:	08:48
Aduna:	09:01
Andoain:	09:14
Urnietia:	09:53
Hernani:	10:19
Astigarraga:	11:05
Errenteria:	11:37
Oiartzun:	12:23
Irun:	13:11
Behobia:	14:00
Bera:	14:50
Lesaka:	15:36



Txerriken banatzaile eta ekoizlea

• Odolkiak • Txistorrak • Saltxitxak • Txorizoak • Solomoak • Txerri burua • Tripakiak

DENAK Poligonoa 307 moduloa • Tf.: 943 59 29 23 • www.ormaki.net • ANDOAIN



Bilbotex®

servicios textiles integrales

- ASESORIA TEXTIL • DESARROLLO DE MARCAS
- TECNICAS PERSONALIZADA
- SERIGRAFIA DIGITAL • SERIGRAFIA • TRANSFER
- VINILO TEXTIL
- BORDADOS • MERCHANDISING

Biarritz, 5 - Lonja 48002 BILBAO

94 410 04 49 bilbotex@bilbotex.com



Andoainen ere,
eman euskara elkarri!



Andoaingo udala

Tf. 943 300 830

www.andoain.org

BESABI

erretegia



Korrikarekin bat !!

Goiburua Auzoa
20130 - URNIETA
Tel.: 943 33 01 31



Urola haranean, 2013. urtean. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Mutriku: 2	0:58
Ondarroa:	21:38
Markina-Xemein:	22:27
Aulesti:	23:42

MARTXOAK 24, ASTEARTEA

Lekeitio:	01:30
Ibarrangelu:	02:49
Elantxobe:	03:10
Kortezubi:	04:19
Gernika:	04:38
Muxika:	05:00
Sukarrieta:	06:46
Bermeo:	07:13
Bakio:	08:38
Mungia:	09:43
Urduliz:	11:38
Gorliz:	12:00
Plentzia:	12:23
Barrika:	12:43
Sopela:	13:11
Berango:	13:50
Algorta:	14:10
Leioa:	15:25
Erandio:	16:04
Barakaldo:	17:10
Sestao:	18:16
Portugalete:	18:38
Santurtzi:	19:06
Trapagaran:	19:47
Ortuella:	20:32
Abanto:	21:06
Muskiz:	21:55

Galdames:	22:41
Sopuerta:	23:14
Balmaseda:	23:57

MARTXOAK 25, ASTEAZKENA

Zalla:	00:20
Aranguren:	00:57
Gordexola:	01:47
Okondo:	02:16
Laudio:	02:55
Aiara:	03:53
Urduña:	05:55
Amurrio:	06:50
Murgia:	09:14
Izarra:	10:10
Kuartango:	10:35
Subijana:	11:55
Argantzun:	13:15
Trebiñu:	14:12
Urizaharra:	15:50
Guardia:	17:42
Eltziego:	18:21
Lapuebla Labarka:	19:00
Oion:	20:42
Viana:	21:36
Mendabia:	23:40

MARTXOAK 26, OSTEGUNA

Lodosa:	00:51
Andosilla:	02:28
Azagra:	03:32
Milagro:	04:43
Cadreita:	05:48

Valtierra:	06:14
Arguetas:	06:37
Cabanillas:	08:40
Ribaforada:	09:32
Ablitas:	10:44
Cascante:	11:23
Tutera:	12:21
Caparroso:	16:23
Murillo del Cuende:	17:20
Pitillas:	17:47

Beire:	18:12
Erriberri:	18:38
Tafalla:	19:20
San Martin de Unx:	20:41
Lerga:	21:39
Eslaba:	22:12
Aibar:	23:30

MARTXOAK 27, OSTIRALA

Irunberri:	00:39
Nabaskoze:	03:00
Espartza:	04:53
Ezkarotze:	05:16
Otsagabia:	05:34
Abaurregaina:	07:11
Abaurrepea:	07:41
Garralda:	08:46
Aurizberri:	09:32
Nagore:	11:09
Urrotz:	13:13
Tebas:	15:20
Arrizabalaga:	15:29
Gares:	17:39
Zirauki:	18:44
Lorka:	19:30
Lizarra:	20:25
Abartzuza:	21:20
Muez:	22:25
Izurzu:	23:16

MARTXOAK 28, LARUNBATA

Etxauri:	00:17
Irurtzun:	02:21
Satrustegi:	02:53
Lakuntza:	04:12
Etxarri-Aranatz:	04:44
Altsasu:	06:08

Ziordia:	07:06
Egino:	07:39
Araia:	08:15
Zalduondo:	08:54
Agurain:	09:26
Dulantzi:	11:08
Gasteiz:	12:25
Etxebarri-Ibiña:	16:29
Ondategi-Goepgi:	17:07
Murua:	17:21
Ubidea:	18:26
Zeanuri:	19:40
Areatza:	20:08
Artea:	20:14
Arantzazu:	20:43
Igorre:	20:57
Zeberio:	21:52
Ugao:	22:44
Arrigorriaga:	23:17
Basauri:	23:42

MARTXOAK 29, IGANDEA

Etxebarri:	00:34
Galdakao:	01:10
Usansolo:	01:36
Bedia:	02:59
Lemoa:	03:15
Zornotza:	03:41
Larrabetzu:	04:50
Lezama:	05:25
Zamudio:	05:41
Derio:	06:03
Loiu:	06:24
Sondika:	06:37
Erandio:	07:00
Bilbo:	07:23
Amaiera:	12:30



Zestoako kaleetan barrena, azken edizioan. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

TXOSNEN ETA ESZENATOKIEN ALOKAIURUA ETA MUNTAKETA

Kalitatezko muntaketa, profesionaltasuna eta bermea

94 620 02 68

Polg. Eitua 52. 6A. 48240 BERRIZ (Bizkaia)

www.jai-kit.com · jai-kit@jai-kit.com

Sotera

Cafeteria - Bar

tel. 94 612 92 67 Ruda. de Libertad, 40. BARAKALDO

TXUTXI LORENZO • AZETAGAS, S.L.

GAS *Mantenimientos*

CALEFACCIONES AZETAGAS

INSTALADOR AUTORIZADO

azetagas@euskalnet.net · (Apdo. correos 133) telef. 94 472 22 95 Móvil 689 70 31 41 PORTUGALETE

BIGISTAKO
BIBILKENDAK
OSTEGARIAN

korrikaren alde!

Nueva dirección
General Castaños, 25
(junto parada autobús)

94 602 61 83
48920 PORTUGALETE

tipi tapa...
tipi tapa...

WWW.KUKUSOAK.COM
BILBOKO ALDE ZAHARREAN, BARRENKALE BARRENA 18

«Inork ez zuen uste horrelako arrakasta lortuko zenik»

XABIER AMURIZA ■ Lehenbiziko Korrikaren abestiaren egilea

BETIDANIK EUSKARAREN ALDEKO BORROKAN ETA HIZKUNTZAREN ALDEKO MUGIMENDUEN INGURUAN, XABIER AMURIZA (ETXANO, 1941) LEHENBIZIKO KORRIKAREN ABESTIAREN EGILE IZATEAREN OHOREAREKIN IGARO DA HISTORIARA, BEREAK HITZAK BAINO EZ DIRELA NABARMENTZEN BARDU ERE. ARRAPALADAN GRABATU ARREN –«GARAI HORRETAN HORRELA BIZI GINEN»– GUSTURA GERATU ZEN EMAITZAREKIN, JENDEAK ABESTU ETA DANTZATU EGIN ZUELAKO.

Nola gogoratzen duzu garai hori? Nola proposatu zizuten abestia egitea?

Arrapalada handi bat izan zen guztia. Nik AEKrekin harreman handia nuen, orduko batzordekoekin, Julen Calzada, Josu Naberan, Alberto Gabika, Jose Antonio Lekue eta abarrekin. Lehenago nire "Hiztegi Errimatu-Hitzaren kirol nazionala" AEKrekin atera nuen; batzuk, kartzela lagunak ere baziren, gainera. AEKrekin harreman handia nuen, beraz, eta Korrika antolatu behar zela esan zidaten. Eguna erabakita zegoela gogoratzen dut, eta hastear zela, azkeneko egunetan, antolakuntzakoei kanta bat egin behar zela otu zitzaien. Artean, lehenengo Korrika horrek lelorik ere ez zuela uste dut. Nigana jo zuten, nik, kantaria ez nintzela esan arren. Hori horrela, esan nien, doinu bat hartu, eta pare bat bertso idatzita *a cappella* abestuko nuela. Doinua Lopategi bertsolariarena da, kartzelara joan aurretik ere ezagutzen nuen hau; Derioko abadeen itxialdi ospetsuan "Gogor" disko klandestinoa atera zen, eta horrako grabatuta utzi genuen; meza moduko bat grabatuta utzi genuen, baina «Ez, ez dut nahi» eta horrelakoekin, abestian [Korrikakoan]. Horixe etorri zitzaidan abestirako [abesten hasi da]. Pare bat urte lehenago, San Mamesen Bai Euskarari jaialdi erral-



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

doia egin zen, Euskaltzaindiak antolatuta. Han ginen bertsolari bezala Jon Lopategi eta biok; horko lelotik hartu nuen. Horregatik gogoratzen naiz ez zegoela lelorik Korrikarako.

Nola grabatu zenuten?

Atzo esan, gaur zerbait prestatu, biharamunean estudioira joan

eta grabatu, horrela egin genuen. Ni ez nintzen gogoratzen, baina emazteak esan dit bera ere abestera joan zela; nik uste nuen umeak bakarrik zeudela. Konponketaren bat ere gehitu zitzaion gero; grabatu eta biharamunean jada kalean zegoen abestia. Arrapaladan. Norbaitek egin behar zuen, eta ni ere ez

nintzen konturatu; orduan, orain bezala, ohituta geunden horrela lan egitera, «egin behar bada» horretara. Horrela gelditu zait ohorea Korrikaren lehenbiziko kantaren egilea izatearena, horrela ez naizen arren; doinua "Gogor" diskoan erabili genuen, nik leloa eta bi estrofa egin nituen, dotore eginak, bai, baina

hori baino ez. Doinua hartu, hitzak aldatu, eta Korrikara egokitu, beste meriturik ez dut. Orain atzera entzun dudala, igartzen dut aldea. 80ko hamarkadan izan zen, orduan nahiko basati kantatzen dut; *a cappella* abestu nuen, indartsu egin behar zen. Eta efektiboa izan zen, abestia, abesten zelako. Egia esan, Korrika

GRABAZIOA

«Atzo esan, gaur zerbait prestatu, biharamunean estudioira joan eta grabatu. Horrela egin genuen. Grabatu eta biharamunean jada kalean zegoen abestia»

 Txoko Txinbo korrikarekin!
PLAZA BARRIA 10 ALDE ZAHARRA. BILBO www.txokotxinbo.eus



BATZOKI BARAKALDO

EGUNEKO MENUA · MENU BEREZIAK · SAGARDOTEGITAKO MENUA
BRASAN ERRETAKO TXULETOIAK · ARDO-DASTATZEA

C/ PASEO DE LOS FUEROS, 7 . BARAKALDO

GALATEA Taberna
Muguruza, 15. Barakaldo. 94 403 64 83

TXIBERRI
ITURALDE 1934 GARENEAN
EDANTOKIA · FRONTOI PARTIKULARRA
AITA GOTZON, 4 - URDULIZ · 94 676 07 15

denetan izan da horrela; doinua oso kantagarria da eta abestia dantzagarria ere bada. Ni gero konturatu nintzen horretaz. Euskalgintzaren bueltan beti ibili izan naiz, eta lagun sortzaileak ere ugari ditut, batez ere Bizkaian. Bilbon egoitza zegoen eta asko ibiltzen nintzen hortik. Konfiantza handia genuen, izan ere, egun batetik bestera ezin da horrela abordatu pertsona, kar-kar.

Korrika egin behar zen berririk bazenuen? Zer iruditu zitzazun ideia?

Bai, baina inork ez genekien ze dimentsio hartuko zuen. Ideia polita, baina ideia handia iruditzen zitzaidan; Euskal Herri osoa, Oñatin hasi eta Bilbora arte, ez dakit zenbat kilometro hainbat egunez... Ideia originala bai, eta bazegoen berotasuna eta konfiantza, baina inork ez zuen uste horrelako arrakasta lortuko zenik, eta horrelako ka-tea ekarriko zuenik. Baina bai, pentsatu nuen ona izango zela; euskaldunok horrelakoetan parte hartzeko onak gara.

Egun, 35 urte beranduago, ze harreman duzu Korrikarekin?

Inguruko saioetan parte hartu dut, batez ere, ekitaldi, kantaldi, bertso saio... orain azkenekoetan jende gazteagoa dago, baina giro-tzean beti, Korrikan bertan zein aurretik. Igual 15 ekitaldi egiten nituen Korrikarako. Eta ez saioak bakarrik. Korrika guztietan parte

hartu dut, orain gutxiago beharbada, baina beti, eta ez hemen inguruan bakarrik [Garain gaude, Bizkaian], Gipuzkoatik eta Nafarroatik deitu didate askotan. Hori izan da nire parte-hartze nagusia. Korrika bera martxan denean, ba norbere herrian. 80. urtean, lehenbizikoa izan zenean, ni Zornotzan bizi nintzen; gainera, zinegotzi nintzen hango udal-etxean; txapelketa irabazi nuen urtea ere izan zen, gainera. Bertsolarioi beti deitu digute horrelakoetarako. Ekitaldi lokaletarako, hainbatean, eta ekitaldi handiagoetan ere, eta libre barenongoen parte hartzen nuen; parte-hartze etengabea hilabete inguruan, izan giroa berotzeko edo Korrikan bertan.

2007koaren amaieran, Miren alabarekin batera irakurri zenuen lekuko barruko mezua. Berezia izango zen, ezta?

Beti izaten da mezu bat Korrika amaieran eta urte horretan transmisioarekin zuen lotura, orduan, aita-alabak aukeratu gintuzten. Miren gazteagoa zen garai horretan, eta hunkigarria izan zen beretzako; modu berean, beretzako hunkigarria izan zelako izan zen niretzako ere. Iruñean, azkeneko kilometroa elkarrekin egin genuen, jendetza artean. Mezua txandaka irakurri genuen biok. Ederra izan zen.

19. edizio honetarako, ze asmo duzu?

EDIZIO GUZTIETAN

«Korrika guztietan parte hartu dut.

Aurtengo edizioan, beharbada, oinez egingo dut

kilometroa, astiro-astiro, baina

Berrizetik pasatzean bertan izango naiz»

Ba herrian antolatzen dutenean parte hartzeko. Ibili askorik ez, herriko kilometroak, baina normalean bezala, ekitaldi edota horrelakoetan ibiliko naiz. Beharbada oinez egingo dut kilometroa, astiro-astiro, baina Berriztik pasatzean bertan izango naiz.

Hasierako ilusio bera eragiten dizu?

Lehenengoa egin eta gero, sentsazio triunfal bat geratu zitzaigun, inork ez zuen horrelako arrakasta espero. Urteekin gehituz joan da olatua, eta hau da ekintza bat maila sozial guztietara iritsi dena. Politikoki izan ditu gorabeherak Korrikak, izan ditu gorabeherak diru laguntzekin. 15 urtetik honantz alderdi politikoek behintzat ez dute Korrikaren aurka egin, eta ez da gutxi. Hori gaintitu da, eta euskalgintzaren mugimendu handi eta originalenetako bat da; Ibilaldiak, Kilometroak,

Nafarroa Oinez... eta horrelakoak baino handiagoa eta luzeagoa, ez delako egun bakarra. Izugarriko formula bat da, herri oso bat martxan da-eta, Euskal Herria martxan, euskararen herria martxan. Pentsa. Arrakasta eta atentzioa ez da gutxitzen egun horietan, gorantz doa izan ere, eta ez dago horrelako besterik. Gure Esku Dago ekimenarekin egin zenak du antz gehien, eta hori ere egun bakarreko kontua izan zen. Nik uste Euskal Herrian antolatu den ekintza kulturalik handienetako bat dela. Osagai guztiak ditu, dena. Ez da euskara bakarrik. Korrika igaro ez arren, gauzak antolatzen dira herri ia guztietan, eta horrelako arrakasta izan duen mobilizaziorik ez da egon, ez politikan ez kulturatan.

Nola transmititu Korrikako ilusio hori egunerokora?

Korrika tresna bat da, adibidez, eskoletan ere asko erabiltzen delako. Lan handia egiten da bertan. Umeak Korrikara joaten dira, gurasoen atzetik, zein gurasoak umeen atzetik. Egunean, berez bizkor pasatzen da herriatik, baina arinagoko lan guztiak berea uzten du gero. Enpresetan ere, kontzientzia dagoen lekuetan ere antolatzen dira eta irteten dira, diruz lagundu ere, baita. Oraindik iraungo du. AEKrentzako diru iturria ere bada, eta egun, estutu egiten dituztela kontuan hartuta, militantzia modu bat da hau.

«'Lasterka' gehiago gustatzen zitzaidan»

Ez dakizun gauza bat kontatuko dizut. Izena eztabaidatua izan zenean, Korrika barik, beste izen bat nahiago nuen. Ekimen nazionala izatean, «Lasterka» gehiago gustatzen zitzaidan, «laster» Euskal Herri osoan erabiltzen zelako; «korrika», berriz, Gipuzkoan erabiltzen zen. Orain «korrika» ere esaten da, eskolan erakusten delako, baina hemen [Bizkaian], adibidez, ez duzu erabiliko naturalki. Zergatik jarri Gipuzkoan soilik erabiltzen den hitz bat guztiok erabiltzen dugun bat edukita?

Irizar
lighting the road

Pertsonekin eta ingurunearekin comprometituta

www.irizar.com

Denok Korrikara!

Euskara da kanpora eta denok Korrikara.

O, Euskara lauda ezan Urepele herria
handikan baitu Korrikak hasiera berria
Bilbon ospatzekotan ba kilometro azkena
Xalbadarren babesean emanen du lehena
Urepeletik Bilbora abia dadin Korrikal!
Euskara da kanpora eta denok Korrikara.

Euskaldunak herrietan ahaldun gaitezen
eta gure mintzaeraz denak harro gagozen,
Urepeletik Bilbora lekukoa gidatzen
Giza katea eten gabe oro laster goazen
Urepeletik Bilbora abia dadin Korrikal!
Euskara da kanpora eta denok Korrikara.

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko euskaldunon hizkuntza.
Korrikazale guztiak hauxe eskatzen dute,
nola zabaldua dagon prezia bezate.
Urepeletik Bilbora abia dadin Korrikal!
Euskara da kanpora eta denok Korrikara.

Gogo konpli dezala euskal jendarteak,
euskahaldun bihurtuz datozen urteak.
Hamar egun eta gauzez Korrika ta Euskara;
euskahaldunei eskerrak pizturik sugarra.
Urepeletik Bilbora abia dadin Korrikal!
Euskara da kanpora eta denok Korrikara.

Batzuk herriaz orroit, euskaraz ahantzi
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berex nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

Lasterketa bera hasi aurretik ere, martxan egon ohi da Korrika. Aurreko girotzeko lan horretarako hamaika ekimen egin ohi dira Euskal Herri osoan, adibidez, Korrika Kulturalak egiten duen bezala. Ba-

da tresna bat, baina, grabaturik geratzen dena: abestia. Kantuarekin, bakoitzak egindako kilometroak gogoratu ohi ditugu, besteak beste.

Esan bezala, Korrika hasi aurretik buruz jakin ohi ditugu abestietako hitz zein moldake-

tak. Gozagarria izateaz gainera, lan pedagogiko itzela egiten du kantak, Korrikaren zein AEKren mezua zabaltzen du-eta. Bestalde, Korrikarako girotzeko lanetarako ere erreminta egokia da. Hamaika eskola zein euskaltegitan errepikatzen dira doinuak, hitzordura abestia ikasita iristeko. Durangon, esaterako, flashmob erraldoia filmatu zuten Korrika Txikiarekin batera; ikasle zein irakasleek dantza ikasi ahal izateko, pauso batzuekin osaturiko bideoa igo zuten Youtubera.

AURTENGOA, BEREZIA

Hemeretzigarren edizio honetarako, abesti «berezia» egin nahi izan dute antolatzaileek. «Kantua ez da aurreko edizioetan egin duguna bezalako». «Denok Korrikara!» deitzen da eta musikari ezberdinek parte hartu dute grabaketan. Abestia bereizten duen ezaugarrietako bat bere sorreran dago, izan ere, ez dute doinu berririk sortu, lehendik ezaguna zen bat moldatu baizik, hitzak eta doinua egokituz.

Hain zuzen, kantu honekin hainbat keinu egin nahi izan

ABESTIA, KORRIKARA HURBILTZEKO IRRINTZIA

dituzte antolatzaileek. Haste-ko, Etxepareren bertsoak moldatuz Gabriel Aresti poeta bilbotarrak idatzitako hitzekin Oskorrik musikatu zuen «Sautrela» abestian oinarritu dira. Euskaraz plazaratutako lehen liburuaren egilearen omenez Oskorrik 1977an kaleraturiko diskoan dago abesti hori, eta nabaria da, beraz, Etxepareri eginiko keinua. Eta hitzei erreparatuz, bada besterik ere, kantu berriko azken bertsoa Mikel Laboaren «Herria eta Hizkuntza» abestikoa da-eta. Bertso horiek, berriz, Fernando Aire *Xalbador* bertsolariarenak dira.

Horrez gainera, abestia berezi egiten du AEKko kideek grabatu izanak; erakundeko irakasleak ere badira hauetako batzuk. Izan ere, abestiaren grabaketan parte hartu dute, besteak beste, Amaia Ezenarro (ahotsa), Andoni Tolosa (gitarra), Asier Goieas-koetxea (dultzaina), Cecic Ilhardoy (bateria), Jojo Bordagarai (ahotsa), Mattin Sorzabalbere (kontrabaxua) eta Maxime Diribarnek (dultzaina). 1977an Oskorrik argitaratutako kantaren doinua hartu eta mol-

daketa batzuk egin dituzte musikariek.

1980. urtean Xabier Amurizak Korrikaren lehenbiziko kanta egin zuenetik, hamaika artista ezagunek jarri diote musika euskararen ekimen erraldoienari; lehenbiziko abesti horretarako, Amurizak, gehigarri honetan bertan azaltzen duen bezala, koplak ezberdinak idatzi zituen, baina doinua Jon Lopategi bertsolariarena da.

TALDE MITIKOAK

Basauriko estudio batean grabatu zen abesti hartaz geroztik, hamaika talde konposatu dituzte Korrikarako abestiak. Oskorri eta Akelarre bezalako talde mitikoetatik hasi, eta Fermin Muguruza edota Betagarri lako taldeetara. Orotarikoko estiloak jorratu dituzte artistek, dantzagarriak gehienetan, aukerak horrela merezita. Furgonetan bertan etenik gabe errepikatzen da korrikalariak animatzeko; gaurtik aurrera ere, hamaika aldiz entzungo da abestia, eta hitzek dioten bezala, guztiok Korrikara hurbiltzeko irrintzia izango da. Urepeletik Bilbora, denok Korrikara!

Martxoaren 19tik 29ra **DENOK korrikarekin**

Gu ere **EUSK
AHAL
DUN!** *ake gara*

aralar



Bar **MENDI**

Pintxo berezietan sorta zabala
Mahi erreserbak
Bazkariak, afariak eta ospakizunak.

Zaballa, 6. BARAKALDO • ☎ 94 437 11 71



langileok **aldaketa**
euskaraz
kalean zein **lanean**,
askatasunean

laneus

www.lab.eus



BILBO ACOGERÁ POR SÉPTIMA VEZ LA FIESTA FINAL



Final de Korrika en Bilbo, en 2005. A la derecha, la edición de 1980 en «Egin». Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Los organizadores de Korrika siempre han elegido una capital vasca para celebrar el final de la carrera en favor del euskara, y en siete de las 19 ediciones organizadas hasta ahora esa capital ha sido Bilbo. Además de la primera edición, en 1980, la capital vizcaina ha sido escenario de final de Korrika en los años 1983, 1987, 1993, 1997 y 2005. En Donostia ha finalizado en cuatro ediciones, en Iruñea lo ha hecho en tres, al igual que en Baiona, y otras dos ha concluido en Gasteiz.

El hecho de que Donibane Garazi y Maule no figuren entre las capitales elegidas para la gran fiesta final de Korrika se debe a que, al tratarse de pequeñas localidades, resulta muy complicado acoger a la gran multitud de personas que se reúnen en torno a las actividades organizadas con este motivo.

Las capitales de Nafarroa Beherea y de Zuberoa sí fueron inicio de Korrika en los años 1995 y 2003, respectivamente.

Junto a ellas, y además de otras capitales de herrialde, también han sido punto de partida del primer kilómetro las localidades de Oñati, Aurratzte, Hendai, Arantzazu, Orreaga, Karrantza, Tutera, Trebiñu y Andoain. En cualquier caso, lo más importante no es dónde comienza ni dónde finaliza, sino que la Korrika arrastra multitud de "korrikalaris" de todas las edades allá por donde pasa y que siempre lo hace en medio de un gran ambiente festivo.

EN MEDIO MUNDO

El próximo día 29 Bilbo volverá a ser escenario de numerosas actividades culturales con motivo de la llegada de la Korrika, que se ha consolidado como un acontecimiento internacional. De hecho, se han organizado actos en ciudades de medio mundo, como La Habana, Cancún, Lima, Shanghai, Sydney, París, Valencia, Edimburgo, México DF, La Plata, Nueva York, Bloise, Marsella, Madrid, Barcelona, Santiago de Chile, Buenos Aires, Berlín, Belfast, Leiptzig, Varsovia, Liverpool, Quebec y otras.

Las euskal etxeak de Quebec y París realizarán un vídeo de todas las Korrikas de la diáspora, para lo que piden a los centros vascos que les envíen vídeos de los actos que organicen a la siguiente dirección de correo electrónico: info@euskalkultura.com.



NON DAGOEN KORRIKA? SAKELAKO TELEFONOAN

Korrika, herri txiki batera iristen denean, mundu guztiak daki non dabilen eta nondik pasako den, baina herri handi batera edo hiriburu batera iristen denean, jende askok egiten ditu galdera berberak: non dago Korrika? Nondik dator? Norantz doa? Ze orduetan pasatzen da hemendik? Aurten, Korrikaren aplikazioarekin informazio hori guztia

sakelako telefonoan eskura daiteke. Aktuing enpresak garatu du Korrikaren sakelako telefonoetarako aplikazioa eta, Play Store (Android) zein App Storetik (Apple), doan deskargatu daiteke. Aplikazio honen bidez, pantaila nagusian Korrikaren unean uneko egoera eskainiko da, bai eta ibilbide osoa, lekukoaren kokalekua denbora errealean eta norberarena eza gututa, Korrikarekiko distan-

tzia zein den, eta abar. Beste pantaila batean, Korrikaren inguruan antolatzen diren kultur ekitaldiei buruzko informazio guztia eskainiko da. Herriarren parte hartzea bultzatzeko, argazki lehiaketa jarri dute martxan. Korrikak irauten duen egunetan, lasterketa erraldoi honekin loturiko argazkirik onenek saria izango dute, eta aplikazio horren bidez argazkiak ikusgai egongo dira.

19.korrika
EUSKAL AHAL DUN!

UREPELETIK BILBORA!
 2015eko martxoaren 19tik 29ra

GALDAKAO
 Martxoak 29, igandea
 01:10

Galdakao Udalak
 Euskara Zerbitzua
www.galdakao.net



HAMAIKA LEKUKO, HAMAIKA EMOZIO



2007ko edizioan, «hartzak» eta Iturengo ioaldunek eraman zuten lekukoa.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Korrika, Euskal Herrian ezagutzen den ekimen kultural parte-hartzaileena dela esatea ez da astakeria; ia bi astean zehar milaka herritarrek parte hartzen dute-eta. Hainbeste kilometrotan zehar, hamaika anekdota izango ditu gutako bakoitzak. Argazki errepikaezinak ateratzeko aukera bikaina dira kilometro horiek. Adibidez, Oibarren

(Nafarroa), azkeneko bi edizioetan herriko lau emakumezko belaunaldiek batera hartzen dute lekukoa: birramama, amama, ama eta alabak.

AEKko kide guztiek egiten dute lan Korrika bezalako ekimen bat aurrera ateratzeko, alta, gutxi izango dituzte Andoni Seijo eta bere taldekideek besteko kilometro kopurua gainean. Korrika 6an ibilbidearen ardura hartu zuen berak; besteak beste,

ibilbidearen nondik norakoak diseinatzeaz arduratzen zen Seijo. Egun, berriz, ibilbideko bi taldeetako batean dago, laguntzen. Urte hauetan ehunka argazki gorde dituzte memorian ibilbideko arduradunek.

Lan nekeza dela aitortu arren, lekukoa daramatenen aurpegia ikuste hutsagatik merezi duela dio. «Lekukoak elektrizitatea edo ematen du, ikusgarria da zenbat milaka aurpegi ikusi ditugun, zenbat emozio ezberdinekin». Gogoz itxaroten diote herrietan Korrikari, girozte lanetarako, beraz, lan erdia egin dago. Furgonetakoak ez doaz isilik, baina. «Euskararen normalizazioaren aldarria zabaltzeko da ekimen hau, eta hori egiten dugu guk ere gure baliabideekin».

Korrikalariak animatu behar izaten dituzte batzuetan, hala ere, sarri abiadura moteldu behar izaten dute. Hain zuzen ere, arrazoi horretarako erantzun gisa hasi zen pankarta eramaten Korrika. «Korrika 7 Iruñeko Gazteluko Plazatik hasten zen, eta ez genuen aurrekusi horrelako jendetza batuko zenik; hiru bira eman behar izan genizkion plazari irtetea lortu orduko. Ondoren, Baionara heltzean pankarta bat ikusi genuen, eta hura jendea kontrolatzeko tresna egokia izan zitekeela pentsatu genuen».

GUSTUKO TOKIAN ...

Korrikaren 6, 7, 8 eta 9. edizioetan aritu zen ibilbidearen arduradun gisara Seijo. Orduetik, asko aurreratu dira teknologiak. Horrek erraztasunak ekarri dituen arren, lehen ere konpontzen ziren, telefono mugikorrik gabe bizitzea posible zela erakutsiz: «Korrika, zarataka, ahal genuen bezala egiten genituen gauzak». Korrikak irauten duen egunetan lekukoa jagoteko ardura dute



Korrika elurpean hasi zen 2005ko edizioan. J. MANTEROLA | ARGAZKI PRESS


talde hauek; zortzina lagunek osatzen dituzte bi taldeak. Hamalau orduko lan-txandak dituzte eguneko, eta hala ere, lekeitiarrak «pribilegiatu» bat dela deritzo: «Ardura handiko kontua da, baina gogo handiz eta ilusioz egiten dena». Kosta ahala kosta, baina sekula ez dute lekukoa galdu zaintzaileek, beti iritsi da salbu helmugara.

Urteetako esperientziari azken urteetan eman den jauzi teknologikoa gehitu behar zaio. «Asko erraztu dizkigu gauzak», onartu du lekeitiarrak. Lehenbiko urteetan, auto bat hartu eta bertan hiru lagun sartuta Euskal Herria zeharkatzen zuten ibilbideko taldeko kideek. Egun, ostera, Korrika aurreko lan guztia asko hobetu da. «Askoz planifikatuago daramagu guztia, zein herritik pasatuko garen, zein taimaina duen, egunez edo gauez igaroko dugun, errepideen aurreikuspena...». Inprobisaziorako leku gutxi izan du Korrikak beti, eta gaur egun are gutxiago.

Antzinako etiketak gainetik kentzeko baliagarria izan zaie baita ere, beraz. «Sasoi batean ustea zegoen Korrika beti berandu heltzen zela, baina 8. Korrikatik aurrera, arazo jakinen bategatik izandako salbuespenak salbuespen, hori ez da horrela izan». Are gehiago, askotan malabarrak egin behar izan dituzte furgonetetako kideek, aurreikusitakoa betetzeko. «Inoiz frenatu ere egin behar izan dugu; berandu pasatzea ez da lagungarria Korrikarako, baina arinago igarotzea are okerragoa da!», dio barrez Seijok.

... ALDAPARIK EZ

Korrika guztiak aurrera atera badira, milaka lagunek egindako lanagatik izan da. Urteekin, teknologiararen laguntzari esker, lan batzuk erraztu egin dira; alta, badira inoren esku ez diren faktore ugari ere. Euskal Herrian, klima berezia dugu, eta honek behin baino gehiagotan baldintzatu du euskararen normalizazioaren aldeko festa. Moteldu ahal izan du, edota parte-hartzaileei (behin festan sartuta ahazten duten) sufrikarioa eragin ahal izan die, baina inoiz ez



Guardia Zibila euskaltzaleak kontrolatzen, laugarren Korrikan.

du lortu gelditzea. «Sarritan galdetzen diogu geure buruari, mirari bat izan da? Kasualitate bat?».

Elurrari buruz galdetuta, Seijok gogoan du bereziki Arabako Urizar mendatean gertatutakoa. Handik igaro beharra zuen Korrikak, baina mendatea itxita zegoen; artean, elurra mara-mara jausten ari zen. Bulegoetakoak (mugikorrik ez zegoen orduan) diputazioetara deika eta deika, baina guztiak albokoaren ardura zela erantzun, eta bideak itxita jarraitzen zuten. «Halako batean, gizon bat agertu zen traktorearekin; lekukoduna han jarri eta horrela zeharkatu zuen Urizar», gogoratu du lekeitiarrak irribarre zabala duela aurrepean.

Euskal Herrian euritara ohi-tuak gauden arren, honek jarritako trabak ere ez dira makalak. Asteotan Erriberan gertatutakoa, Korrikako egunetan jazo zen orain dela urte batzuk. Errepidea urez gainezka zegoen eta ibilgailuek ezin zuten igaro; zorionez, errepidearen beste aldean, lekukoak bazuen nork heldu. «Gauza asko gertatu dira urteotan, eta hainbeste jenderen laguntza gabe ezinezkoa litzateke hau guztia egitea».

Aurrerapen teknologikoa ez ezik, azken urteetan logistika eta baliabide materialaren aldeko hobekuntzak izan dira Korrikan. Horieta batek eragin zuena du zoritxarrez oraindik antolatzaileak gehien arduratzen dituen gaitetako batean:

errepidean. Azkeneko edizioetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ondo konpondu dira Erztzaintzaren laguntzari esker, hala ere, Nafarroako polizia foralak nahiko oztopo jarri dizkie azken urteetan. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, berriz, ez dute batere lagundu. «EAEra sartzen garenean, arnasa hartzen dugu».

Izan ere, AEKrentzako oso garrantzitsua da parte-hartzaileen segurtasuna bermatzea.

HASI ETA BUKATU

AEKko irakaslea zela eutsi zion apustuari Seijok. Aurretik, Xabier Alegria zen arduraduna, eta honek Korrikaren ardura hartzean berari eskaini zion lekukoa hartzea. «Dardarka nengoen, baina berak gai ikusten ninduela entzutean baiezkoa eman nion».

Hasiara duen guztiak amaiera bat behar du, borobiltzeko. Korrikaren kasuan ere horrela izaten da, eta furgonetetako kideen kasuan, helmugara iritsi eta ibilgailuko motorra itzaltzerakoan askatzen dute barrukoa. «Momentu intimoa da hori, amaitu eta denboratxo bat behar izaten dugu lasaitu eta egokitzeke; bi mila kilometrotik gorra dira emozio maila altu batekin».

Gaur, furgonetan motorra martxan jartzearekin batera, beste hamaika anekdota idatziko dira Korrikaren historia liburuan, eta bertan parte hartuko duten guztien gomutan.



2007an, gisa honetan eraman zuten lekukoa, Arabako Marieta herriko inguruetan.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

USURBIL euskararen herria, euskaldunen herria,
EUSKALDUN!!

Usurbilgo udala

Meñaka
Korrikarekin bat!!

Meñakako Udala
Elias Agirre Plaza 1
94 674 21 01

19. Korrika
EUSKALDUN!

19. Korrika
AJANGIZKO
UDALA
euskararen alde korrika!

19. Korrika
EUSKALDUN!

aukeran,
euskaraz
korrikarekin
bat!

Mallabiko
Udala

Maruri-Jatabe KORRIKAgaz bat!

Maruri-Jatabeko Udala

"Bakotxak berea,
zergatik ez guk euskerea?"

MARTXOAK 21

ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



19. KORRIKA elkarrekin egingo dugu
IRUN eta BEHOBIA artean

Zatoz gurekin!

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

«PERTSONA» «HELBURU»
«COMPROMISO» «CON» «LAS» «PERSONAS»